

# **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK**

Gure bezeroekin harremanetan jartzeko bi komunikazio desberdin aukeratze erabaki dugu uste dugulako gaur egungo era ikusita egokiena delako.

Kanal nagusia denda finko batean saltzea izango da. Gutxi gorabehera 2 saltzaile kontratatu egingo genituzke. Hasiera batean lokala nahiko txikia izango litzateke, etekinak lortu ahal izateko eta gure produktua ikusten baldin badugu ondo saltzen dela, leku desberdinetan jarriko genituzke, gure produktua merkatuan zabaltzeko erraztasuna izateko. Gure dendara "KeyLive" izena izango duena, noski, hornitzaileak eramango lituzkete produktuak.

Baina beste kanal bat irekitzea ere aukeratu dugu esate baterako online metodoa erabiliz. Erosotasunaren aldetik metodo hau nabariagoa da eta ikusita gaur egun gehiena interneten bidez erosten dela aukera egokia dela pentsatu dugu. Gainera lehen aipatu bezala, online erosiz gero hurrengo erosketarako 20% deskontua izango du.